Debako Andra Mari (Zutoidun elizak Guipuzkoan)

Debako moilea merkataritzari emana zen XIV. menderako eta hiriaren hazkuntzak berez ekarri zuen Itziartik bereiztea. Merkataritzaz eta bale arrantzaz ekonomiaren goratzea ezagutu bazuen XV. mendea zehar, XVI.ean aberastasunen gailurrean aurkituko genuen, lehengo ondasunez gainera Amerikak aurkitzeaz oletarako ekarri zuen lanak, bakailo arranza Luberrian hasi zenez eta Gaztelako artileak geroago eta harrera hobea zuenez Europako ifarraldean. Esatea denez bertatik itsasoz irtetzen zen artileari jarritako zergen kontura egina omen da Debako elizaren atari ederra.

Dena dela, ekonomiaren hazkuntzak ekarri zion aberastasunaren lekukotasunez hor dugu Debako Andra Mari parrokia. Bere lehen agiri idatzia 1394koa izatez gainera atari eta kapera gotikoak dituena; bere parte printzipala Pizkundean Gipuzkoan eraiki ziren zutoidun elizetarik bat eta horrez gainera XVI. mendeko kalostrea duena.

Arkitekturazko balio horiegatik probintziako elizetarik ederrenetakoa dugu, 1931. urtean Oñatiko San Migelekin batean monumentu deklaratua. Zoritxarrez, ez zaio prestatu Oñatikoari baina begiramendu eta bere parterik gahiena egoera txarrean aurkitzen da.

M.A. Arrazolak ongi estudiatua du eliza hau eta bere adierazpeneri jarraituko diogu gehien bat. Hala ere, A. José Adriano Lizarralde izan zen atariko irudigintza zehatzen aztertu zuena. Berak esana da, Andra Mariaren harrizko Ebanjeliodun museo berezi bat dela Debako ataria.

Bederatzi gertakarik osatzen dute ateburua: lau Mariaren amatzaz, beste lau bere heriotzaz eta azkena aingeruen erregin koroatzeaz. Bere kidekoak ditu Laguardiko Santa Maria eta Gasteizko katedral-zaharreko atariak. Lizarralderen ustez, lehenagokoa gainera. Baina M.A. Arrazolak, López del Vallado, Weise eta Azkarateren eritziak jaso ondoretin, geroagokotzak jotzen du.

Atari hau elizaren dorrepean dago. Dorrea bera izan daiteke elizaren partetik zaharrena. Erdi-aroan zelatarako eraikia izan behar duenez, itsasotik etortzen ziren erasoaldiak zaintzeko egina.

Gaiak, ekaldekoen erara, Ebanjelio Apokrifoetan oinarriturik daude, Andra Mariaren lotaratzea italiar ohiturazkoa dela. Bere egikera zaharkitua herrikoi itxurazkoa dugu eta honegatik, ezta begiratu batean uste bezain zaharra. Ateburuko tinpanoa XIV. mendearen azken partekoa izan behar du. Azkarateren ustez beranduagokoa. Behar bada XVI.aren haserakoa. Arkiboltaren ojibaldun bost arkuetatik parezka dauden hirutan, doselete tipien artean, aingeruen koruak, Ama Birjinak eta profeten imajinak daude, heuren soinekoak holako zurruntasun edo gogortasunez, tolesdura zuzenez: aingeruak, hegoak batuta, orkesta mutuaren antzera, soinugailuz; gainerakoak, geldirik, bizitzaren gloria irabazi dutenen gisa. Atari honek ezagun du nafar gotikoaren influentzia eta honek Frantsiakoa.

Ate bikoitza zatitzen duen zutoiak geroago gehiatutako pilare bat du Salbatzailearen imajina batekin. Imajina hau daiteke atariko irudirik berriena. Ezker-eskubitara, ilaran, arkitekturazko frisua osatuz, gabletapeetan apostolutza. Irudi zutiak, bakoitzak bere ezaugarria duelarik. Beren jantzien tolesdurak Pizkunde garaira hurbiltzen dira. Honegatik, atariko parterik berrienetakoa dugu, XV. mendearen azkenaldian edo XVI. aren hasieran bukatuak.

Mendeetako zehaztasuna ematea ezta erraz inguruetan adibideak hain urri direnean. Hala ere, Debako elizaren gotiko partean aipatzea beti presente izan behar dugu XIV. mendeko ageri idatzla.

Elizaren zolu nagusia, hirukoitza da, sutoi klasikoekin, bertan ezartzen diren sabaiak altura berdinez. Euskal gotiko esan ohi direnetakoa. Zortzi zutoi ditu, oinarriak atiko estiloz eta kapitelak dorikoak. Sabai izartuak oso konplikatuak baina oso apainak dira. Atzekaldeko zutoiak korua eusten dute. Elizburu bakarra du, erdialdean, eta bere sabaia Pizkunde garaiko eraz egina da.

Agiri denez, XVI. mendearen bigarren aldian trasformatua da, bere hormen kanpokaldetik parte zaharragoak gordez. atari, kapera eta kalostrea. Berritze hori, Gorosabelek aipatzen duenez, Joan Arostegiren proiektuz egina da, 1629an Joan Ortiz Olaetaren zuzendaritzapean bukatzeko.

Korua egitea Joan Martínez Arronakin kontratatu zen 1554. urtean. Erabagia kalostrean egindako batzar batean hartu zen. Beraz ordurako egina zen kalostre hau. Bertarako sarrera Epistolaren alderditik du. Sabai gurutzatuak ditu eta hamasei leiho handi. 1547an Txomin Gaintza kontratatu zuten kalostrea bukatzeko falta ziren hamairu leihoak egiteko; lehendik zeuden hiruretatik bat eredutzat hartuz. Sabaien giltzarrietan milolojiazko zenbait irudi ageri dira, beren artean maiz agertzen dela eguzkia eta eguzki-lora. Argi ederra du eta urte guti dela berriztatua da.

Monumentu hau aski abandonaturik aurkitzen dugu. Umedade handia du eta zenbait parte, laster konpontzerik ez bada, hondatzeko zorian daude. Egokitzeko, teilatu berritzetik hasi beharra du.

Juan SAN MARTIN

Deva es poseedora de una de las iglesias más monumentales de la provincia de Guipúzcoa, en la que predominan los estilos gótico y renacentista, y que fue declarada Monumento Histórico Artístico de carácter nacional en 1931.

Por tradición, tiene fama de haber sido erigida con el producto de las contribuciones impuestas a las mercancías que desde su puerto se exportaban C. de Echegaray decía que se debía principalmente al comercio de la lana castellana. De todas formas, se puede asegurar que mantenía un comercio activo para el siglo XIV.

La parte más primitiva debe ser el primer tramo de la torre, hasta "la cornisa que lleva gárgolas. Torre maciza, fortaleza defensiva, que servía de vigía sobre el mar y también contra la piratería marina, especialmente contra las incursiones normandas.

Esta torre sirve de porche a una magnífica portada gótica, con excepcional conjunto de obra escultórica. En su tímpano representa nueve escenas historiadas de la Virgen: cuatro relativas a la maternidad, otras cuatro alusivas a su gloriosa muerte, y la última a su coronación. Lizarralde que estudió detenidamente su iconografía dijo que en ella "como en museo único se recuerdan las escenas de la vida de la Santísima Virgen, el Evangelio en piedra de María".

María Asunción Arrázola, en su conocida obra sobre el Renacimiento, contrastando diversas opiniones de su data y como medida prudencial, sitúa a esta parte como de finales del siglo XIV o de primeros del XV.

Los cinco arcos ojivales que componen la arquivolta, con tres pareados donde aparecen distribuidos ángeles, vírgenes y profetas, situados en doseletes, pertenecen a la construcción inmediata al tímpano. Dichos ángeles representan una orquesta celestial con sus laúdes, triobas y flautas. Son tallas rudas y rústicas. Al mainel se le añadió otra base donde se sitúa, bajo dosel, una escultura del Salvador. A los lados de las puertas, formando friso arquitectónico, bajo gabletes, se sitúan los doce apóstoles en pie, portando cada uno sus atributos, sobre pedestales profusamente decorados. Pertenecen a la última parte de la construcción de la portada, de finales del XV o principio [illegible]. Esta portada fue pintada [illegible] riormente fue repintada en [illegible] Diego de Zárate, [illegible].

En toda avenigua[illegible] tener presente que [illegible] la existencia de esta [illegible] 1394, y que tal vez [illegible] algunas partes góticas de [illegible] plo.

La planta principal [illegible] naves separadas por [illegible] clásicas que llevan bóvedas [illegible] piteles dóricos que [illegible] complicadas bóvedas [illegible] ondulantes y terciletes. [illegible] vedas están a la [illegible] Sobre las últimas [illegible] apoya el coro alto. El presbi[illegible] planta rectangular, [illegible] que sólo corresponde a la [illegible] tral y su bóveda se [illegible] de arco triunfal. [illegible] Renacimiento.

Es una iglesia [illegible] segunda mitad del siglo [illegible] ha conservado parte [illegible] en los muros superiores [illegible] capillas y claustro. La [illegible] según Gorosabel, la [illegible] con traza de Juan de [illegible] dió fin a las obras [illegible] Ortiz de Olaeta.

El coro se encuentra [illegible] nez de Arrona en 1554. [illegible] de dicho encargo se [illegible] claustro, lo que viene a [illegible] su existencia. Este claustro [illegible] ingresa por la nave de [illegible] tiene bóvedas de crucería [illegible] ventanales que corresponden [illegible] bóveda. Hay constancia de [illegible] 1547 se contrata a Txomin [illegible] Gainza la hechura de [illegible] ventanales que [illegible] completar, tomando [illegible] una de las tres existentes [illegible] Arrázola recoge lo siguiente [illegible] mente escribió sobre el [illegible] rrilla:

Cuadriláttero ojival,
de estilo tal como aquel,
no le vi, ni halló como él,
en cartuja o catedral.

Donostiako kontserbatorioa (IV)

Irakaslego on batekin hasi zituen ***Pablo Sorozabalek*** *1906an bere musika ikasketak eta Donostiako Musika Akademian ikasle trebe eta ikaskor agertzen zaigu lehen ikastaroetan: 1911.eko ikastaroa amaitzen denean, bikain notarekin bukatzen du solfaketako laugarren kurtsoa eta urte berean beteko ditu Sorozabalek 3, 4 eta 5. ikastaroak bibolin ikasketetan, denak bikain notarekin.*

-Baina 1910/1911 ikastaroan badugu Donostiako Akademian beste musiku ospetsu bat ere: ***Juan Telleria Arrizabalaga*** *zegamatarra. 1911.eko Urtarrilaren 30-ean Musika Batzordeak egin zuen bileran, ikasle hauei beka ematea erabaki zuen: Igeldoko Alejandro Alberdi Lizarretari, Rikardo Amiano Garmendia, beasaindarrari, eta aipatutako zegamatar gazteari. Ongi merezitua zuen Telleriak 300 pezetako laguntza hori, ikastaroa bukatukeran Harmonia Piano eta Organiku lehen kurtsoan bikain mailari iritsi zen eta. Hurrengo ikastaroa 1912an amaitu zuenean ere, bikain nota lortu zuen hiru ikasketa horietan.*

Donostiako Konserbatorioaren Historian arrazoi askogatik da aipagarria 1912 urtea. Udaleko Musika Bandak bere Akademia berezia zeukan eta haize eresgailuen ikasleek bertan lortzen zuten hezkuntza. 1907-tik 1912 arte Bernardo Gabiola izan zen Udal Musika Bandaren zuzendaria eta, beraz, Udal Akademiaren arduraduna. Baina 1912an Gabiolak, Madrideko Kontserbatorioan irabazi zuen Organo Katedra eta hutsunea betetzeko lehiaketetan Regino Ariz Zia iruinzemeak, Jose Francoren aurka, irabazi zuen kargua. Ariz jauna Iruñean 1847.ean jaioa zen eta 1903.etik Irungo Udal Bandaren Akademia eta beste Donostiako Musika Akademia, biak Udalaren babespean, erakunde baten bildu ziren Garibai eta Peñaflorida kalegurutzean. Donostiako Musika Akademian ikasten ziren gaietatik aparte, Bandako instrumentuak ere sartu ziren ikasgaietan eta Regino Ariz izan zen lan honetarako irakasle hautatua. Gerotxoago, 1914.eko ikastaroaren hasieran, Ariz jauna izango da Akademia berriaren zuzendaria.

Baina 1912an badaukagu beste gauza aipagarri bat ere. Beltran Pagolak Erviti Argitaletxean bere ***Harmonia Ikasbidea*** *kaleratzen du. Eta erakunde berria urrats handia bada Kontserbatoriaren historian, ez da Pagolaren argitalpen hau txikiagoa Donostiako musika hezkuntzaren historian.*

Beltra Pagola Gola Donostian jaio zen 1878an. Jose Antonio Santestebanekin tiple izan zen Andra Mari Basilikan eta piano ikasketak haren seme izan zen Jesus Santestebanekin egin zituen. Hamalau urtedun Madrideko Kontserbatoriora jo zuen eta Trago maisuarekin bukatu zituen bere piano ikasketak eta Balentin Arinekin harmonia ikasi. 1895.eko ikastaroa amaitukeran, lehen saria irabazi ondoren Donostira etxeratu zen Pagola gaztea. 1899-tik 1902 arte Udal Musika Bandaren zuzendaria ordea izan zen eta, dakigunez, 1902an, irabazi zuen Donostiako Musika Akademian Harmonia eta Konposaketako katedra.

Berak diozkunez, Balentin Arin Madridera joan orduko Hilarion Eslabaren Harmonia Ikasbidea erabiltzen zen eta Arinek sartu zuen Madrideko Kontserbatorioan beste ikasbide modernoago bat, Durand jaunaerana. Musiku frantses honen ikasbide hori oinarritzat harturik, Arin eta Fontanilla jaunek Metodo berri bat asmatu eta argitaratu zuten, orduko Kontserbatorio guztietan ezstudiatzen zena. Baina Beltran Pagolak Europako musika giro berria ezagutzen zuen eta oso atzeratua iruditzen zaion metodo hau ordurako musikagintzan beste teknika berri batzu meneratzen ziren eta. Usandizagak, Guridik eta Gabiolak Parisetik eta Bruselatik, esate baterako ekarritako teknika berriak. Pagolak, pedagogia aldetik, Rimski-Korsakoff errusoaren metodoa ikusten zuen egokiena eta Harmonia eta Konposaketako katedra hartu zuenetik, errusoaren ikasbide hori zerabilten bere irakastaldietan. Azkenean berak asmatutako ikasbide berri bat argitaratzea erabaki zuen eta hau izan zen Donostiako Udal Musika Akademian 1912an onartu izan zen Harmonia ikasteko metodo berria. Aurreranizean, Harmonia ikasleek, Almandoz, Urtega, Iturralde, Sorozabal, Garbizu, Eskudero, adibidez Europako musikaren giro berria hurbilago eta ulerkorrago izango zuten.

Pagolaren Harmonia Ikasbide honek hainbat argitalpen izan ditu eta berak 1948an katedra utzi eta bera 1950an hil ondoren estudiatua izan dena dugu. Orain klasikoa dirudi baina bere garaian aurrerakoia izan zala esan genezake. Baina kontuan eduki behar duguna da ikasbidean araudi bat edo ematen zuela Pagolak inprimatua, eta ikastaroetan gaurko musikaren analisia ere egiten zuela, orduko inpresionismoa oso ondo ezagutzen zuen eta 1917an Debussy-ren musika aztertu zuen Pagolak hitzaldi kontzertu batetan eta 1920an beste antzeko ekitaldi batetan gure Maurice Ravelen musikagintza, bietan piano adibide batzu berak emanaz. Beltran Pagolaren garaia hasi zela 1912an, Udal Musika Akademia sortu zenean, esango nuke.

José ANTONIO ARANA MARTIJA

Pablo Sorozabal inició sus estudios con un buen cuadro de profesores; pero su predisposición para la música hizo además que hiciera una buena carrera terminada en 1911 su cuarto curso de solfeo y el 3, 4 y 5 curso de violín, todos ellos con calificación de sobresaliente. Un nuevo músico aparece en el curso 1910/1911: Juan Telleria Arrizabalaga, de Zegama. El 30 de Enero de 1911 la Comisión de Música de la Academia acuerda otorgar becas a Alejandro Alberdi, Ricardo Amiano y Juan Telleria, beca merecida en este último caso porque ese año termina con calificación de sobresaliente los primeros cursos de Armonía, Piano y Organo, repitiendo la calificación en las tres asignaturas al curso siguiente.

El año 1912 es importante por muchas razones en la historia del Conservatorio de San Sebastián. Hasta entonces la Banda Municipal de Música tenía su propia Academia para la formación de instrumentistas. Fue Director de ella hasta 1912 Bernardo Gabiola quien al ganar la Cátedra de Organo del Conservatorio de Madrid dejó un hueco que fue llenado en oposición por Regino Ariz Cia. Nacido este en Pamplona en 1847 era desde 1903 director de la Banda Municipal de Irún. Pues bien; al comenzar el curso 1912/1913 ambas Academias se fundieron en una, aportando la de la Banda la Cátedra de Conjunto Instrumental que regentaba Regino Ariz. Al comenzar el curso 1914/1915 sería éste nombrado Director de la Nueva Academia Municipal de Música de San Sebastián.

Pero en 1912 ocurre otra circunstancia importante: la Casa Erviti edita el **Tratado Práctico de Armonía** de Beltrán Pagola. Había nacido éste en San Sebastián, [illegible] pués de ser tiple en la [illegible] José Antonio Santestebanekin [illegible] estudiado piano con su [illegible] Santesteban, se fue a [illegible] de Madrid donde en [illegible] primer premio de [illegible] pués de haber estudiado [illegible] Tragó y armonía con [illegible] De 1899 a 1902 fue [illegible] Banda Municipal de [illegible] sabemos, en 1902 se [illegible] enseñanza de la Armonía [illegible] sición en la Academia [illegible]

Como el mismo [illegible] drid había surgido la [illegible] eslabistas y los [illegible] fendían los respectivos [illegible] armonía de Eslabá y [illegible] tróductor del [illegible] había sido Aria, que [illegible] un método nuevo [illegible]

Pero Pagola [illegible] San Sebastián [illegible] armonía y contrapunto [illegible] traídas entre otros por [illegible] Guridi y Gabiola, [illegible] todo del Conservatorio [illegible] que juzgaba atrasado [illegible] empezó a explicar [illegible] Academia se valía de [illegible] Rimski-Korsakoff [illegible] en las nuevas ideas [illegible] nuevo método [illegible] en 1912 impuso [illegible] nuevo método, [illegible] daría en adelante [illegible] como Alandoz, Urtega, [illegible] Sorozabal, Garbizu, [illegible] otros, a sentirse más [illegible] biente musical de [illegible] ropa y estando [illegible] Bélgica o Alemania [illegible] tudios, las nuevas [illegible] hicieron más corto [illegible] goia ha tenido [illegible] ha estudiado en [illegible]

Este método [illegible]